

Lanak, hornidurak eta zerbitzuak kontratatzeke baldintza-orri administratiboen ereduak bi gidaliburu eman dizkie EUDELek udalei

Bilbon, 2011ko azaroak 25. EUDELek bi gidaliburu eman dizkie Euskadiko udalei. Lanak, hornidurak nahiz zerbitzuak kontratatzeke baldintza-orri administratiboen ereduak, eta kontratazio espedienteak egiteko inprimakiak jaso dira bi argitalpen horietan.

Bi gidaliburu horiei esker, baldintza-orri administratiboen eta horiek betetzeko argibideen hainbat adibide izango dituzte udalek. Hortaz, udalek material hori erabiltzen badute udaletan gehien egiten diren kontratuak izapidetzeko orduan, agiri horiek egiteko lana sinplifikatu eta arindu egingo da.

Eredu-agiriak eta betetze-argibideak jaso dira 26. zenbakia duen gidaliburuan; 27.ean, aldiz, eredu-inprimakiak.

Gidaliburuen bitartez, tokiko erakundeek –bereziki, teknikari gutxi dituzten udal txikiek– denbora eta baliabideak aurrez ditzatela nahi du EUDELek.

Ereduzko 100 inprimaki baino gehiago

Guztira, sektore publikoko hainbat kontratu kudeatzeko erabiltzen diren ereduzko 122 inprimaki jaso dira gidaliburuetan. Gidaliburuetan jaso dira, hain zuzen ere, erakunde publikoek kontratazio espedienteak martxan jartzeko erabili ohi dituzten agiriak eta gehien aplikatzen dituzten prozedurak.

Bilaketak erraz egin ahal izateko, bestetik, inprimakiak gaika sailkaturik daude.

Arestian aipatutakoez gain, agiriak betetzeko hainbat argibide jaso dira gidaliburuetan. Hau da, kontratuen baldintzak eta aldagaiak zuzen aukeratzeko beharrezkoak diren irizpide materialak eta legezko argumentuak jaso dira.

EUDELen euskarri digitala EUDELen web-orrian dago eskuragarri.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Sektore Publikoko Kontratuak buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea aldatzen duten abuztuaren 5eko 34/2010 Legea eta martxoaren 4ko 2/2011 Legea egokitzeko egindako berrikusketari eta eguneratzeari erantzuten diote bi gidaliburuak.

Berriki, azaroaren 16ko EAOn, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartu duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua argitaratu da. Hori dela eta, hizpide ditugun argitalpen hauek berrikusiko ditugu datozen hilabeteotan, eta eguneratutako bertsioak EUDELen web-orrian argitaratuko ditugu.